


Pastelak jan ditzatela?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Paris, 1774ko maiatzaren 10a. Luis XV.a hilda, Luis XVI.a eta Maria Antonieta Austriako artxidukesa Frantziako eta Nafarroako errege-erregin izendatu zituzten. Maria Antonia Josepha Johanna von Habsburg-Lothringen 1755ean jaio zen Vienako Hofburgeko jauregian, Frantzisko I.a Germaniako Erromatar Inperio Santuko enperadorearen eta Maria Teresa I.a Austriakoa enperatrizaren 16 seme-alaben artean azken aurrekoa. Amak haur andana ahalik eta ondoen ezkontzea zuen helburu, eta horretara bideratutako heziketa zorrotza jaso zezaten ahalegindu zen. Maria Antonietak musika, dantza, moda, kantu eta ahoskera eskolak jaso zituen, besteak beste, baina politikan eta ekonomian gerora baliagarriak izango zitzaizkion lezioei ez zieten arreta handirik jarri.

Eta, printzipioz, enperatrizak ezkontza ezin hobea lotu zuen alabarentzat. 14 urte zituela Maria Antonieta Frantziako delfinarekin ezkondu zen: batetik, erregina izango zen eta, gainera, ordurarte elkarren aurka aritutako bi dinastia indartsuen arteko harremana estutuko zen.

Orain badakigu zein izan zen senar-emazteen amaiera, baina Luis XVI.a gillotinatik Maria Antonieta baino lehenago pasa arren, austriarraren lepoa eskatzen lehenago hasi ziren. “Madame Defizit”, “austriar otsemea” eta halako ezizenak jarri zizkieten, eta bere jatorria baliatuz hitz joko berezia egiten zuten; “*autrichienne*” (austrarra) esan beharrean, “*autre chienne*” (beste txakur emea) esaten zioten. Gortean bereha-



Maria Antonieta pastelaz inguratuta. Sofia Coppolaren *Marie Antoinette* (2006) filman.

la egin zituen etsaiak, bere aldekoak ez zirenak baztertu zituenean. Politikarrien artean ere ez zituen lagunak egin, esaterako, Turgot finantza arduraduna kargutik egoztea eragin zuenean. Edo bere gutizia garestiak asetzeko dirutza xahutzen zuenean.

Baina herritar gehienek gorrotoa piztu zuena esaldi ezagun bat izan zen. Iraultza prozesuaren hasieran, erreginak galdetu omen zuen herritarrak zergatik ari ziren protestan, eta jateko ogirik ere ez zutela esan ziotenean, “*Qu'ils mangent de la brioche*” erantzun omen zuen, pastelak jan zitzaatela, alegia.

Bada, ez dirudi Maria Antonietak sekula horrelakorik esan zuenik. Jean-Jacques Rousseau garaikideak antzeko esal-

di bat aipatzen du *Les confessions* lanean, eta badirudi Luis XIV.aren emazte Maria Teresaz edo Madame de Montespanez ari zela, biak Maria Antonieta jaio baino askoz lehenago hil zirenak. Stefan Zweig biografoak Luis XV.aren alaba batek esan zuela uste zuen, eta guztia erregina austriarraren aurkako zurrumurru kanpainaren barruan kokatzen du. Antonia Fraser historialaria ere iritzi berekoa da, eta gogorarazten du Versaillesko Martxan jendetzak “*Vive le roy*” oihukatzen zuela, emazteari heriotza opa zioten bitartean.

Horrek guztiak ez du derrigorrez esan nahi Maria Antonieta uste baino askoz hobea zenik, errege familiako edo goi nobleziako gainerako kideak baino askoz okerragoa ez zela baizik. ●



Tsunami Atacamako basamortuan

Duela 3.800 urte, 9,5 magnitudeko seismo bortitz batek eta horrek eragindako tsunamiak Txileko kostaldea jo zuten. 4.000 urtez Atacamako kostaldean bizi ziren komunitateak barrualdera bultzatu zituen tsunamiak, eta beste 1.000 urtetan ez zituzten berriro eremu horiek populatuko.

Diego Salazar arkeologoa buru duen Txileko Unibertsitateko ikerlari taldeak *Science Advances* aldizkarian eman du oraintsu teoria horren berri, eta hipotesiaren fidagarritasuna bermatzeko, geratzen diren frogak aztertu eta modelo matematikoak aplikatu dituzte. ●